



# IKUSPEGIAK

Arteei eta  
Kultura Industriei buruzko Estatistikaren  
datuen irakurketa analitikoa


# 2015



ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# IKUSPEGIAK

Arteei eta  
Kultura Industriei buruzko Estatistikaren  
datuen irakurketa analitikoa

# 2015



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:  
1.a, 2017ko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet:  
[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:  
Miren Unzurrunzaga Schmitz

# aurkibidea

Sarrera .....	5
<b>I. EAEko ARTEEI ETA INDUSTRIEI BURUZKO ZIFRAK .....</b>	<b>6</b>
1. Sektoreen dimentsioa .....	7
2. Titulartasuna .....	16
3. Lurraldea .....	19
<b>II. ZEHARKAKO IRAKURKETAK .....</b>	<b>22</b>
1. Asimetriak .....	23
2. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria .....	37
3. Arteen eta kultura-industrien bolumen ekonomikoaren bilakaera .....	39
4. Kultura euskaraz .....	43
5. Ekimen publikoak duen pisua eta harekiko mendekotasuna .....	55
6. Berritzea eta nazioartekotzea .....	58
7. Generoa .....	63
<b>III. LABURPENA .....</b>	<b>68</b>



## Sarrera

*Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren* bosgarren edizioak 2015eko datuei egiten die erreferentzia, sektorearen datu hertsiez haratago doa, eta datuen analisia egitea du helburu. *Ikuspegiak* txostenak irakurketa orokorra egiten du, interpretazioari bide emateko. 2007an jarri zen martxan estatistika, 2009an saltokien eta argitaletxeen sektorea gaineratu ziren, eta, horiek horrela, lau edizio ditugu dagoneko (2009-2015) sektore guztietarako, eta horrek interes handiagoa ematen die berez ere balioa duten datuei, emaitza horien bidez joerak azter daitezke eta.

Ikuspegiak txostenak txosten sektorialeiei interesa gehitzen dieten bi elementu eransten ditu: kultura-sektore osoaren ikuspegia eta zeharkako irakurketak. Edizio honetan bi berrikuntza nabarmen ditugu, aurreko galdesortetan behar adina sakontzen ez zirenak: euskararen presentzia ekoizpenean eta programazioan, eta emakumeek enpleguan duten lekua.

Analisia hiru atal handitan egituratzen da:

Lehenik, arteen eta kultura-industrien ezaugarri orokorrak aurkezten dira dimentsio sektoriala, titulartasuna eta dagokien lurralde-banaketa aztertuz.


Bigarrenik, datuen zeharkako irakurketa egiten da: sektoreetako asimetriak, erreproduzitzen den kulturaren eta zuzenean eskainitako kulturaren arteko bereizketa, agenteen jarduera ekonomikoaren bilakaera, euskarak kultura jardueran duen pisua, agente pribatuen mendekotasun-maila publikoa, berritze- eta nazioartekotze-maila eta emakumeek enpleguan duten presentzia.

Azkenik, emaitza nabarmenenen laburpena aurkezten da.



# EAEko ARTEEI ETA INDUSTRIEI BURUZKO ZIFRAK

1



# 1. Sektoreen dimentsioa


Arteei eta Kultura Industriari buruzko Estatistikaren 2015eko datuen informazio honek eroldaren zati izateko [eskatutako baldintzak](#) betetzen dituzten EAEko kultura-esparru guztietako 629 agenteen informazioa aurkezten du<sup>1</sup>. Honako sektore hauetan ekoizpen-, erakusketa- eta salmenta-jardueretan aritzen diren agenteak dira:

- **Arte eszenikoetako** sektorea 117 programatzailek eta 76 ekoizlek osatzen dute. Programatzaileen artean aretoak (82) eta jaialdiak (35) hartzen dira kontuan. Antzerki eta dantza konpainia profesionalak (63 eta 13, hurrenez hurren) dira ekoizpenaren protagonista.
- **Liburu** sektoreak 151 agente biltzen ditu, eta agente horien artean 109 liburu-dendak dira eta 42, aldiz, argitaletxeak.
- **Musika** sektorea, 144 agentek osatutakoa, zuzeneko musikan aritzen diren 122 agentek eta disko-industriaren 23 agentek osatzen dute. Musika-programatzaileen artean 69 programatzaile publiko dira, 21 sustatzaile pribatu, 19 kontzertu-areto, 3 orkestra, eta 9 musika eta txistulari banda. Diskoaren industriak 3 diskoetxeak eta 20 disko-saltokik ordezkutzen dute.
- **Ikusizko arteek** 50 agente biltzen dituzte guztira, erakusketa-aretotan, arte-galeriatan eta ekoizpengunetan banatutakoak (30, 18 eta 2, hurrenez hurren).
- **Ikus-entzunezko** sektoreko 91 agente ekoizleak.

<sup>1</sup> Kultura-sektore bakoitzeko [estatistikaren berariazko argitalpenean](#) eroldan sartzeko kontuan hartutako irizpide metodologikoak eta lan-eremuaren fitxa teknikoa deskribatzen dira.

1. Irudia. Agenteak, sektorearen arabera.


Absolutuak · 2009-2015



2013. urteari dagokionez, agente sareak % 3,8ko hazkundera izan du (23 agente gehiago). 2009ra jotzen badugu, 46 agente gutxiago zenbatu dira edizio honetan, hots, % 6,8ko jaitsiera.

2. Irudia. Agente sarearen bilakaera, sektorearen arabera. 2009-2015

Oinarrizko indizea 100=2009



Arte eszenikoek sare egonkorragoa mantentzen dute aztertutako denboraldian (2009-2015). Ikusizko arteen sektoreak izan du murrizketarik handiena 2009az geroztik (32 agente gutxiago 2015ean 2009arekin alderatuta). Musikak jaitsiera txikia izan du 2009arekin alderatuta (% 11,1 gutxiago 2015ean). Ikus-entzunezkoen sektoreak dinamika hori irauli egiten du, eta liburuak, berriz, azken bi edizioetan izandako jaitsiera gainditu du.

2013arekin alderatuta, zenbait sektoretan gehitu egin da agenteen sarea: ikus-entzunezko ekoizleak (% 21,3), arte eszenikoetako ekoizleak (% 13,4) eta liburu-dendak (% 13,5).

### 3. Irudia. Agenteak, sektorearen eta agente tipologiaren arabera.

Datu absolutuak eta ehunekoak · 2009-2015


Sektorea	Agente tipologia	2009		2011		2013		2015		Aldakuntza, 2013-2015
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	84	12,4	80	12,4	67	11,0	76	12,1	▲ 13,4
	Programatzailea	106	15,7	109	17,0	112	18,4	117	18,6	▲ 4,5
Liburua	Argitaletxea	38	5,6	38	5,9	38	6,3	42	6,7	▲ 10,5
	Liburu-denda	120	17,8	100	15,6	96	15,8	109	17,3	▲ 13,5
Musika	Orkestra	3	0,4	3	0,5	3	0,5	3	0,5	=
	Musika eta txistulari bandak	-	-	-	-	7	1,2	9	1,4	▲ 28,6
	Programatzailea publikoa	74	11,0	68	10,6	71	11,7	69	11,0	▼ 2,8
	Sustatzaile pribatua	29	4,3	29	4,5	29	4,6	21	3,3	▼ 27,6
	Kontzertu-aretoa	24	3,6	25	3,9	23	3,8	19	3,0	▼ 17,4
	Diskoetxea	6	0,9	5	0,8	5	0,8	3	0,5	▼ 40,0
Ikusizko arteak	Disko-saltokiak	26	3,9	26	4,0	21	3,5	20	3,2	▼ 4,8
	Ekoizlea	5	0,7	4	0,6	3	0,5	2	0,3	▼ 33,3
	Erakusketa-gela	51	7,6	51	7,9	38	6,3	30	4,8	▼ 21,1
Ikus-entzuezoak	Arte-galeria	26	3,9	26	4,0	21	3,5	18	2,9	▼ 14,3
	Ekoizlea	83	12,3	79	12,3	75	12,3	91	14,5	▲ 21,3
<b>GUZTIRA</b>		<b>675</b>	<b>100,0</b>	<b>643</b>	<b>100,0</b>	<b>608</b>	<b>100,0</b>	<b>629</b>	<b>100,0</b>	<b>▲ 3,5</b>

2015eko gastuen eta diru-sarreraren balantzea positiboa da, 6,2 milioi euroko emaitzarekin, hau da diru-sarreraren gutzitzaoren % 1,7. Joera-aldaketa da hori 2013arekiko, urte horretako balantzea 8,6 milioi euro baitzen, negatiboan. Ekitaldi honetan, aurreko urteetako (2009 eta 2011) balantze positiboetara itzuli gara.

2013. urteari dagokionez, ia sektore guztietan dute diru-sarrerak joera positiboa. Ildo horretan, azpimarratzekoa da 2013an izandako jaitsierarekiko susperraldi txikia. Hurrengo irudiari esker, diru-sarreraren gehikuntza zein sektoretan zor zaion agenteak ugaritu izanari ikusi ahal izango dugu, eta zein kasutan zor zaion sektorean izandako susperraldi txiki bati.

#### 4. Irudia. Agente kopuruaren aldakuntza eta sektoreen araberako diru-sarrerak.

Ehunekoak · 2013-2015




Ikus-entzunezko industriak biltzen du orain ere bolumen ekonomiko handiena (diru-sarreraren % 41,2 eta gutzitzaoren % 42,5), aurreko edizioen aldean bere pisua gutxitu den arren, 2013arekin alderatuta datuak mantendu dira. aurreko edizioen aldean bere pisua gutxitu den arren, 2013arekin alderatuta datuak mantendu dira. Liburu, musika eta arte eszeniko sektoreek gora egiten dute termino absolututan, liburuak neurri handiagoan, 2013arekin alderatuta % 19,7 egin du gora diru-sarreretan, 86,9 milioi eurora iritsita.

Gastuei dagokienez, diru-sarreretan ikusten den gehikuntza-joera bera ikusten da, baina nabarmentzekoa da 2013. urtearekiko aldakuntza txikiagoa dela sektore guztietako diru-sarreretan baino, arte eszenikoetan izan ezik, non gastuek % 0,4ko gutxitzea erakusten duten (eta diru-sarrerak % 6,6 gehikuntza).



## 5. Irudia. Agenteen guztizko diru-sarrerak, sektorearen arabera.


Euroak milioietan eta ehunekoak · 2009-2015



Oharra: 2015ean Ikusizko Arteetan ez da ekoizpen-zentroi buruzko informaziorik ematen, datuen konfidentziasun-arrazioak direla eta.

## 6. Irudia. Agenteen guztizko gastuak, sektorearen arabera.

Euroak milioietan eta ehunekoak. 2009-2015



Oharra: 2015ean Ikusizko Arteetan ez da ekoizpen-zentroi buruzko informaziorik ematen, datuen konfidentziasun-arrazioak direla eta.

2015ean arte eszenikoetako programatzaileek, kontzertu-aretoek, diskoetxeek eta ikus-entzunezko ekoiztetxeek galerak erakusten dituzte diru-sarreraren eta gastuen arteko balantzean. Arte-galeriak, argitaletxe eta liburu-dendek, musika sustatzaile pribatuek, arte eszenikoetako ekoizleek eta disko-saltokiek emaitza positiboak lortu dituzte.

7. Irudia. Diru-sarrerak, gastuak eta balantzea, sektorearen eta agente tipologiaren arabera.  
Euroak milioietan eta ehunekoak · 2015


Sektorea	Agente tipologia	Diru-sarrerak	Gastuak	Balantzea	Guztizko diru-sarreraren gaineko ehunekoa
		Euroak milioietan	Euroak milioietan	Euroak milioietan	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	13.098,4	12.469,7	628,7	4,8
	Programatzailea	33.612,1	34.042,4	-430,3	-1,3
Liburua	Argitaletxea	31.208,3	28.569,9	2.638,4	8,5
	Liburu-denda	55.727,5	53.224,6	2.502,9	4,5
Musika	Orkestra	16.795,5	16.795,5	0,0	0,0
	Programatzailea publikoa	16.739,9	16.734,9	5,0	0,0
	Sustatzaile pribatua	28.877,3	26.520,1	2.357,2	8,2
	Kontzertu-aretoak	3.254,3	3.678,1	-423,8	-13,0
	Musika eta txistulari bandak	9.079,8	9.079,8	0,0	0,0
	Diskoetxea	644,0	665,9	-21,9	-3,4
	Disko-saltokiak	2.982,4	2.883,8	98,6	3,3
Ikusizko arteak	Erakuslea	4.559,3	4.559,3	0,0	0,0
	Arte-galeria	2.437,2	1.629,8	807,4	33,1
Ikus-entzunezkoa	Ekoizlea	153.716,5	155.716,3	-1.999,8	-1,3
<b>Guztira</b>		<b>372.732,5</b>	<b>366.570,1</b>	<b>6.162,4</b>	<b>1,7</b>

Oharra: Ikusizko Arteetan ez da ekoizpen-zentroi buruzko informaziorik ematen, datuen konfidentziasun-arrazioak direla eta.

Enpleguari dagokionez, langileen % 5eko gehikuntza izan da 2013arekiko, 138,5 enplegu gehiagorekin<sup>2</sup>. 2015. urtean 2.814 langile ziren guztira; ikus-entzunezko sektoreak biltzen du oraindik ere langile proportziorik handiena (% 44,6), atzetik musika (% 21,2) eta liburu industria (% 16,7) dituelarik. 2013ari dagokionez aldakuntza handiena duten sektoreak liburuaren sektorea eta (% 20,8 gehikuntza) eta ikus-entzunezkoen sektorea dira (% 29,5eko jaitsiera), betiere kontuan izanda estatistikan bildutako liburu industriako agenteen % 12,7ko gehikuntza eta ikusizko arteetako agenteen % 19,4ko jaitsiera.

2015eko ekitaldi honetan funtzio profesionalen arabera buruzko informazioa gehitu da. Nabarmentzekoak dira funtzio teknikoei lotutako enpleguak (% 57,7), nabarmen atzetik zuzendaritza-postuak (% 15,8), mantentze-lanekin lotutako enpleguak, garbitasuna, segurtasuna (% 13,5) eta, azkenik, kudeaketa- eta administrazio-postuak (% 12,9).

**Irudia 8.** Langileak (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak), sektorearen arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak · 2009-2015



Oharra: 2015ean Ikusizko Arteetan ez da ekoizpen-zentroei buruzko informaziorik ematen, datuen konfidentziasun-arrazoia direla eta.

<sup>2</sup> Txostenean langile kopuruari buruzko erreferentzia egiten den kasu guztietan Lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak baliokideei buruzkoa da kalkulua.

9. Irudia. Langileak (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak), sektorearen eta agente tipologiaren arabera.

Datu absolutuak eta ehunekoak · 2009-2015

Sektorea	Agente tipologia	2009		2011		2013		2015		Aldakuntza, 2013-2015
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	234,8	7,5	186,4	6,4	173,6	6,5	204,8	7,3	▲ 18,0
	Programa-tzailea	218,4	6,9	217,7	7,5	210,6	7,9	224,1	8,0	▲ 6,4
Liburua	Argitaletxea	196,9	6,3	167,6	5,7	126,1	4,3	168,5	6,0	▲ 33,6
	Liburu-denda	350,0	11,1	308,6	10,6	263,0	9,9	301,7	10,7	▲ 14,7
Musika	Orkestra	211,0	6,7	214,2	7,3	206,0	7,7	202,0	7,2	▼ 1,9
	Programa-tzaile publikoa	90,6	2,9	71,1	2,4	75,1	2,5	77,4	2,8	▲ 3,1
	Sust. pribatua	144,6	4,6	133,2	4,6	125,5	4,8	93,5	3,3	▼ 25,5
	Kontzertu-aretoa	63,3	2,0	61,5	2,1	38,0	1,4	31,0	1,1	▼ 18,4
	Musika eta txistulari bandak	-	-	-	-	101,3	3,8	165,2	5,9	▲ 63,1
	Diskoetxea	15,5	0,5	16,5	0,6	16,1	0,6	6,4	0,2	▼ 60,2
	Disko-saltokia	40,2	1,3	34,5	1,2	28,6	1,1	21,3	0,8	▼ 25,5
	Ekoizlea	26,0	0,8	24,0	0,8	23,2	0,9	-	-	-
Ikusizko arteak	Erakusketa-gela	43,0	1,4	49,8	1,7	34,9	1,3	33,0	1,2	▼ 5,4
	Arte-galeria	43,9	1,4	36,9	1,3	30,5	1,1	29,5	1,0	▼ 3,3
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	1.465,6	46,6	1.396,7	47,9	1.230,5	46,2	1.255,6	44,6	▲ 2,0
<b>Guztira</b>		<b>3.143,8</b>	<b>100,0</b>	<b>2.918,5</b>	<b>100,0</b>	<b>2.683,2</b>	<b>100,0</b>	<b>2.814,0</b>	<b>100,0</b>	<b>▲ 4,9</b>

Oharra: 2015ean Ikusizko Arteetan ez da ekoizpen-zentroei buruzko informaziorik ematen, datuen konfidentziasun-arrazoia direla eta.

10. Irudia. Langileak (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak), sektorearen, agente tipologiaren eta lanbide-kategorien arabera.

Datu absolutuak eta ehunekoak · 2015

Sektorea	Agente tipologia	Zuzendaritza		Teknikaria		Kudeaketa Administrazioa		Beste batzuk		Guztira	
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
Arte eszenikoak	Ekoizleaes	58,2	28,4	34,6	16,9	45,3	22,1	66,7	32,6	204,8	100,0
	Programatzailea	26,2	11,7	93,3	41,6	71,3	31,8	33,3	14,9	224,1	100,0
Liburua	Argitaletxea	45,1	26,8	72,8	43,2	30,7	18,2	19,9	11,8	168,5	100,0
	Liburu-denda	109,2	36,2	57,5	19,1	94,7	31,4	40,3	13,4	301,7	100,0
Musika	Orkestra	4	2,0	174	86,1	21	10,4	3	1,5	202	100,0
	Prog. publikoa	8,8	11,4	35,8	46,3	13,4	17,3	19,1	24,7	77,4	100,0
	Sust. pribatua	14	15,0	35	37,4	16,4	17,5	28,2	30,2	93,5	100,0
	Kontzertu-aretoa	4,5	14,5	4,2	13,5	5	16,1	17,5	56,5	31	100,0
	Musika eta txistulari bandak	4,6	2,8	158,2	95,8	2,4	1,5	0	0,0	165,2	100,0
	Diskoetxea	2	31,3	2	31,3	2	31,3	0,4	6,3	6,4	100,0
	Disko-saltokia	10,8	50,7	9,3	43,7	1,2	5,6	0	0,0	21,3	100,0
Ikusizko arteak	Erakusketa-gela	5,1	15,5	15,3	46,4	5,1	15,5	7,5	22,7	33	100,0
	Arte-galeria	18,5	62,7	4	13,6	3,5	11,9%	3,5	11,9	29,5	100,0
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	134,4	10,7	928,8	74,0	51,6	4,1	140,8	11,2	1.255,6	100,0
<b>Guztira</b>		<b>445,4</b>	<b>15,8</b>	<b>1624,8</b>	<b>57,7</b>	<b>363,6</b>	<b>12,9</b>	<b>380,2</b>	<b>13,5</b>	<b>2.814,0</b>	<b>100,0</b>

Oharra: 2015ean Ikusizko Arteetan ez da ekoizpen-zentroi buruzko informaziorik ematen, datuen konfidentziasun-arrazoiak direla eta.


## 2. Titulartasuna

Titulartasun publikodun agentetzat hartzen dira nagusiki Administrazio Publikoek partaidetutako erakundeak, edozein motatako izaera juridikoa dutela ere; titulartasun pribatua enpresa-izaera eta irabazi-asmoa duten jarduerako agenteei dagokie eta azkenik, elkarteak eta fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira.

Titulartasun publikoko agenteak dira nagusi (% 57,5 2015ean), beheranzko joera apalarekin.

11. Irudia. Agenteak, titulartasunaren arabera.

Ehunekoa · 2009-2015




Ikuspuntu ekonomikotik begiratuta, agente pribatuen nagusitasunak ez dauka proportzionalki egokitu beharko litzaiokeen pisua: agente publiko eta pribatuen diru-sarreraren bolumena 175 milioi euro inguru da (% 48,2 agente pribatuen kasuan, % 47,0 agente publikoen kasuan). Ikuspegi ekonomikotik begiratuta elkarteek eta fundazioek aztertutako kultura-agenteekiko duten eragin murrizta erakusten dute datuek.



## 12. Irudia. Guztizko diru-sarrerak, titulartasunaren arabera.


Euroak milioietan eta ehunekoak · 2009-2015



Oharra: 2015ean Ikusizko Arteetan ez da ekoizpen-zentroi buruzko informaziorik ematen, datuen konfidentzialtasun-arrazoiak direla eta.

## 13. Irudia. Guztizko gastuak, titulartasunaren arabera.

Euroak milioietan eta ehunekoak · 2009-2015




Oharra: 2015ean Ikusizko Arteetan ez da ekoizpen-zentroi buruzko informaziorik ematen, datuen konfidentzialtasun-arrazoiak direla eta.

Enpleguari dagokionez, titulartasun pribatua duten agenteek langileen % 51,5 biltzen dute; 2013an ez bezala, non sektore pribatuko enpleguak beheranzko joera erakusten baitzuen (% -28,1), % 7,3 suspertu da 2015ean. Enplegu publikoari dagokionez, zeina aurreko edizioetan egonkorra izan den, % 3,8ko gehikuntza txikia izan du 2013. urtearekiko, eta horixe da sektore pribatuaren gehikuntzarekin batera % 5eko gehikuntza globala izatearen arrazoia.

14. Irudia. Langileak, titulartasunaren arabera. Lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak.

Datu absolutuak eta ehunekoak · 2009-2015




Oharra: 2015ean Ikusizko Arteetan ez da ekoizpen-zentroei buruzko informaziorik ematen, datuen konfidentzaltasun-arrazoiak direla eta.

### 3. Lurraldea

Lurralde Historikoen arabera begiratzuz gero, Bizkaian agenteen kontzentrazio handia ikus daiteke, bereziki, lurraldeak duen pisua bolumen ekonomikoari (diru-sarrera guztien % 65,2; gastuen % 59,8) eta enpleguari (% 61,5) dagokienez.

15. Irudia. Agenteen, diru-sarreraren, gastuen eta langileen ehunekoak Lurralde Historiakoaren arabera.

Ehunekoak · 2015



Dena den, lurralde baten kultura-dentsitatea bere biztanleriaren arabera hartu behar da kontuan. Horrela, kultura-sarea biztanleriaren arabera aztertuz gero (100.000 biztanleko ratioa), Gipuzkoa nabarmentzen da (35,5), Bizkaia (26,5) baino bederatzita puntu gehiago eta Arabak (23,3) baino 11 gehiago. Gipuzkoak dituen programatzailer eta ekoizle ratioak (15,6 eta 13,0, hurrenez hurren) Bizkaia baino handiagoak dira. Esanguratsua da Arabak eta Bizkaia erakusten duten maila paretsua, salmentan izan ezik. Kultura-establezimenduei dagokienez, Bizkaia nabarmentzen da Gipuzkoaren aurretik, eta, bereziki, Arabaren aurretik (7,5, 6,9 eta 3,7, hurrenez hurren).

16. Irudia. Agente programatzaileen eta erakusleen, saltokien eta ekoizleen 100.000 biztanleko banaketa eta ratioa, Lurralde Historikoaren arabera.


Datu absolutuak eta ratioa/100.000 biztanle. 2015

Agente tipologia	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		EAE	
	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.
Programatzaileak eta erakusleak	11,5	37	15,6	111	10,5	120	12,3	268
Saltokiak	3,7	12	6,9	49	7,5	86	6,8	147
Ekoizleak	8,1	26	13,0	92	8,4	96	9,8	214
<b>Guztira</b>	<b>23,3</b>	<b>75</b>	<b>35,5</b>	<b>252</b>	<b>26,5</b>	<b>302</b>	<b>28,9</b>	<b>629</b>

Agente programatzaileen eta erakusleen banaketa zehazki aztertuta, Bizkaia eta Gipuzkoa nagusi direla ikus daiteke; ikusizko arteen agente erakusleen erdiak Bizkaian dira, eta musika-programatzaileen eta arte eszenikoen kasuan, % 86 Gipuzkoaren eta Bizkaiaren artean banatzen da.

17. Irudia. Agente programatzaileak eta erakusleak, Lurralde Historikoaren arabera.


Ehunekoak · 2015



Saltokiei dagokienez aldeak ikusten dira lurraldearen arabera: Bizkaian arte-galeriak nabarmentzen dira (% 66,7), atzetik liburu-dendak dituztela (% 62,4); Gipuzkoan disko-saltokiak nabarmentzen dira (% 60,0); eta Araban arte-galerik eza azpimarratu behar da.

## 18. Irudia. Saltokiak eta kontzertu-aretoak, Lurralde Historikoen arabera.


Ehunekoak · 2015



Agente ekoizleak Gipuzkoan eta Bizkaian kokatzen dira gehienbat, baina hurrengo irudiari erreparatzen badiogu, arte eszenikoetako ekoizleen banaketa nabarmentzen da, Araban gailentzen delarik % 18,4ko pisuarekin.

## 19. Irudia. Agente ekoizleak, Lurralde Historikoaren arabera.

Ehunekoak · 2015



ZEHARKAKO IRAKURKETAK

2



# 1. Asimetriak

Sektore bakoitzean diren asimetriak azalera da atal honen helburua, 80-20 araua erabiliz. Gehitutako datuak, ikuspegi orokor bat izateko beharrezkoak badira ere, lausotu egiten dituzte aztertutako esparru bakoitzari dagozkion aldeak. Horrexegatik aztertzen da kapitulu honetan sektore bakoitzean oro har diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20ak duen eragina.


Lehenik, sektore guztietako asimetriei eta kontzentrazio-mailari begirada botaz gero, ikus dezakegu diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k sektore bakoitzeko diru-sarrera guztien 10 euroko 7 edo 8 euro metatzen dituztela (liburu-dendek izan ezik, % 59,5arekin).

Diru-sarreraren kontzentrazio hori, bere jarduerarenarekin alderatuta, baliagarria zaigu jardueren eta negozioen arteko aldeei erreparatzeko. Horrela, agenteen % 20 horren jarduerak kultura-saltokietan duen pisua nabarmentzen da: sektore horiek egindako guztizko salmenten % 70-80 metatzen dute.

Haatik, diru-sarreraren kontzentrazio-maila handieneko agente erakusle eta programatzaileen taldearen jardueraren pisua sektore osoaren % 40-50 ingurura iristen da. Nabarmentzen den agente talde horren eta gainerakoen arteko aldea ez dago hainbeste kontzertu edo funtzio kopuruan, baizik eta programatzen dituzten ikuskizun eta kontzertuek duten kostuan.

20. Irudia. Agente tipologiaren rankinga, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20aren diru-sarreraren kontzentrazio-mailaren eta jarduera bolumenaren\* arabera.

Ehunekoak · 2015



\* Disko-saltokiak eta liburu-dendak = salmentak; argitaletxeak = nobedade gisa editatutako tituluak; arte eszenikoak = funtzioak; musika = kontzertu programatuak; ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeak = ekoizpenak; ikusizko arteak = erakusketak).

(1) EITB gabe.


### Arte eszenikoetako ekoizleak

Diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoetako agente ekoizleen % 20k sektoreko diru-sarreraren % 70,0 biltzen dute, aurreko edizioetan izandako pisua baino handixeagoa.

Aztertutako adierazle guztiek islatzen dute joera hori: enpleguan, muturreko talde hori 2013an % 39,7 izatetik 2015ean % 44,8 izatera igaro da (% 32,9ko gehikuntza, 22,7 langile gehiago).

Jarduerari dagokionez, azpimarratzekoa da emanaldiek izan duten igoera, % 67,0 gehitu baitira (727 funtzio gehiago termino absolututan). Ekoiztako eta ustiatutako ikuskizunek igoera txiki bat erakusten dute, baina bere horretan mantentzen dira 2013arekin alderatuta. Ondorioz, etekin handiagoa ateratzen diete beren ekoizpenei.

21. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoetako ekoizleen % 20aren pisu erlatiboa. 2009-2015




## Arte eszenikoetako programatzaileak

Diru-sarrereren bolumen handiena biltzen duten antzerki-aretoen ezaugarriak dira datuen erakusgarri: ekipamendu handiak dira, hiriburuetan eta udalerrri nagusietan kokatutakoak.

Arte eszenikoetako areto handien diru-sarrerek duten pisu nabarmenak diru-sarrereren banaketan du isla, baina baita sortzen duten enpleguan eta erakartzen duten publikoan ere. Enpleguaren eta ikusleen pisua zertxobait gutxitu da 2015ean: 16 aretok diru-sarrereren guztizko bolumenaren % 74,9, enpleguaren % 63,7 eta ikusleen % 63,1 hartzen dute.

22. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoetako areto programatzaileen % 20aren pisu erlatiboa.

2009-2015




Arte eszenikoetan jaialdien asimetria da kultura-agente guztien artean dagoen handienetakoa. Diru-sarrereren bolumen handiena metatzen duten 7 jaialdiek 2013an diru-sarrereren % 84,4 izatetik 2015ean % 80,9 izatera igaro dira (termino absolututan 222.420 euro, diru-sarrereren % 2,3 gutxiago).

Enpleguak berriz, diru-sarrereren aurkako joera du, eta 2015ean gehitu egin da. 2013an enpleguak zuen joerari jarraikiz, 7 agente horien pisua igo egin da langileen % 77,6 bilduz.

Jarduerari dagokionez, programatutako ikuskizunen pisua gutxitu egin da eta % 35,2an dago eta gehitu egin da programatutako funtzioetan (% 46,6).

23. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoetako jaialdien % 20aren pisu erlatiboa.

2009-2015




## Liburu-dendak eta argitaletxeak

Sektoreko diru-sarrera handienak dituzten 22 liburu-dendek diru-sarreraren guztizkoaren % 59,5 dute eta liburu salmentagatiko guztizko diru-sarreraren % 59,6; aipatzekoa da erdiak kateenak direla eta beste erdiak liburu-denda independenteak.

Enpleguari dagokionez, antzeko dinamikari jarraitzen dio, baina zertxobait azpitik, eta sektoreak enplegu osoan duen indarra % 48,7 da (147 enplegu sortzen dituzten termino absolututan).

24. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten liburu-denden % 20aren pisu erlatiboa.

2009-2015



2013an, argitaletxeen arteko asimetria hazi egin zen termino ekonomiko eta produkzio terminotan; 2015ean apur bat gutxitu da, nobedade gisa argitaratutako tituluek baino ez dute gora egin (termino absolututan 67 titulutan egin dute gora).


Diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20 diren 8 argitaletxeek 23,1 milioi euroko diru-sarrerak dituzte (sektorearen guztizko bolumenaren % 73,9), eta liburu-salmentagatiko diru-sarreraren % 74,3 (guztira 20,6 milioi euro termino absolututan).



Beren produktibitateari dagokionez, nobedade gisa argitaratutako ale guztien % 75etik gora bilduz jarraitzen dute, nahiz eta beren pisua guztizkoaren % 81,5etik % 76,7ra jaitsi den.

Dena den, langileei dagokienez, beheranzko joera da nagusi oraindik ere, baina sektorearen erdia hartzen jarraitzen du.

25. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten argitaletxeen % 20aren pisu erlatiboa. 2009-2015




## Musika-programatzaileak

2015ean diru-sarrera gehien dituzten musika-programatzaile publikoen % 20ak 2011ko zifretara iritsi dira berriro. Diru-sarrerei dagokienez, diru-sarreraren bolumenik handiena duten 14 agenteek 12,2 milioi euro biltzen dute, guztizkoaren % 73,1, eta enpleguaren % 50etik gora hartzen dute.


Programatutako kontzertuei dagokienez, 2011ko balioetara iritsi da berriro adierazle horren pisua (% 44,8) eta guztizkoaren hamar ikusletatik zazpi erakartzen dituzte oraindik ere (% 73,9).

26. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten musika-programatzaile publikoen % 20aren pisu erlatiboa. 2009-2015



Sustatzaile pribatuen arteko asimetria handiagoa da, nahiz eta zertxobait jaisten den 2013ko zifrekin alderatuta. Diru-sarrera gehien duten lau agente pribatuek % 81,2ko pisua dute diru-sarreraren guztizkoari dagokionez (23,5 milioi euro termino absolututan). Asimetria handia da, halaber, ikusleen eta langileen kasuan (% 74,9 eta % 65,2, hurrenez hurren). Programatutako kontzertuei dagokienez, azpimarratzekoa da % 30,7ko jaitsiera, programatutako 797 kontzertutatik 552 kontzertutara.

27. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten sustatzaile pribatuen % 20aren pisu erlatiboa. 2009-2015




Estatistikaren azken bi edizioetan kontzertu-areto nagusien indarra diru-sarrerei eta jardueri dagokienez murriztu bazen ere, 2015ean joera hori aldatu egin da eta diru-sarrera gehien dituzten 4 aretoak % 60,2 lortzetik % 70,3 lortzera igaro dira, eta kontzertuen kopuru handiago bat programatzera (programatutako kontzertuen guztizkoen % 21,0 ziren 2013an, eta % 33,5, aldiz, 2015ean).

Haatik, ikusleak eta enpleguak nabarmen murriztu dute beren pisua. Ikusleak termino absolututan gehitu badira ere (2013an baino 7.423 ikusle gehiago), diru-sarreren bolumen gutxien duten aretoetako ikusleak neurri handiagoan hazi dira, 4 areto horien pisu erlatiboa murrizaraziz (% 25,8). Dena den, enpleguaren pisua ez da soilik murrizten gainerako aretoetan izandako gorakadarengatik, baizik eta langile kopurua % 42,1 gutxitu delako.

28. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten kontzertu-aretoen % 20aren pisu erlatiboa.

2009-2015




## Disko-saltokiak

Disko-saltoki nagusiek sektore osoan duten pisua % 70etik gora dago adierazle guztietan, enpleguan izan ezik, % 54,4ko pisu erlatiboarekin. Diru-sarreraren % 71,2 biltzen duten lau establezimendu dira, salmentengatiko diru-sarreraren % 71,2 eta EAEn saldutako diskoetxeen % 78,4.

29. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera gehien dituzten saltokietako agenteen % 20aren pisu erlatiboa.

2009-2015




## Ikusizko arteetako agenteak

Arte-galerien asimetria esparru guztietan gehitu da 2015ean, batez ere diru-sarreretan: lau arte-galeriak diru-sarreraren % 69,8 hartzen dute eta salmentengatiko diru-sarreraren % 70,8.

Aurreko edizioetan ikusten zenez, enpleguari eta sustatzen duten erakusketa-denboraldiari dagokienez sektoreak dituen berezko ezaugarriek honako hau eragiten dute: faktore horiek enpleguari eta egindako erakusketei dagokienez duten pisua (gutzizkoaren % 37,3 eta % 24,3, hurrenez hurren) berez dagokien pisutik hurbilago egotea agenteen kopuruari dagokienez.

30. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten arte-galerien % 20aren pisu erlatiboa.


2009-2015



Erakusketa-areto handiekiko, nabarmentzekoa da asimetriak handia izaten jarraitzen duela diru-sarreraren eta enpleguaren ikuspuntutik begiratuta. Diru-sarreraren bolumen handiena duten sei aretoek diru-sarreraren guztizkoaren % 74,7 biltzen dute, eta enpleguaren % 60,8, betiere 2013koen antzeko balioei eutsita.

Erakusketak asimetriarik gabe mantentzen dira orain ere, nahiz eta beren pisu erlatiboa apur bat jaisten den, 2013ko % 21,2tik 2015eko % 15,7ra igarota.

31. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten erakusketak-aretoen % 20aren pisu erlatiboa. 2009-2015



## Ikus-entzunezko ekoiztetxeak


Ikus-entzunezkoen asimetrien azterketa egiteko, alde batera utzi dugu EITB, asimetriaren magnitudeak gainerako sektorearen karakterizazioa zailtzen baitu. Euskadiko ikus-entzunezkoen sektorean diru-sarreraren aurrekontuaren % 68,3 eta guztizko enpleguaren % 48,2 osatzen du EITBk. 2013. urteari dagokionez, apur bat jaitsi egin da sektorean duen pisua; 2013an diru-sarreraren % 72,5 zen eta enpleguaren % 52,5.

Behin ETB kenduta, diru-sarrera handien % 20 duten agenteen taldeak diru-sarreraren % 71,2 biltzen du. 18 ekoiztetxeek talde horrek sektorearen % 56,3 enplegatzen du (EITB zenbatu gabe), 2013an baino % 1,3 gutxiago.

Dena den, ekoizpenei dagokienez ia ez dago asimetriarik, eta jardueraren pisua % 29,2ra iristen da. Aurreko edizioan nabarmentzen zenez, guztizko ekoizpenetan duten pisu txikiak adierazten du ekoiztetxe handiek proiektu gutxi egiten dituztela, proiektu handiak izanik ere. Dena den, 2013. urtearekiko nabarmendu behar da ekoizpen kopuruaren gehikuntza handia izan dela 2015ean, zehazki 178, datu absolututan zenbatuta.

32. Irudia. Adierazle sektorialetan diru-sarrera handienak dituzten ikus-entzunezko ekoiztetxeen % 20aren pisu erlatiboa<sup>(1)</sup>.

2009-2015



(1) ETB gabe.




## 2. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria

Zuzeneko kulturaren barruan dira zuzenean ikus daitezkeen arte eszenikoei, musikari eta ikusizko arteei lotutako adierazpen multzoa; adierazpen horiek kultura erreproduzigarriak sortzen dituen produktuez bestelako izaera dute, eta liburuaren, diskoaren eta ikus-entzunezkoaren kultura-industria klasikoak dira kultura erreproduzigarri horren adierazgarri.

2015ean, aldaketa txikiak ikusten dira agenteen maparen banaketan 2013arekin alderatuta, eta gehitu egiten dira % 13,7an kultura erreproduzigarriari lotutakoak (32 agente gehiago). Dena dela, kultura erreproduzigarriari dagozkion agenteen eta zuzeneko kulturari dagozkionen arteko erlazioa % 42,1 versus % 57,9 da hurrenez hurren. Datu absolututan, 2009az geroztik, kultura erreproduzigarriak 8 agente galdu ditu eta zuzeneko kulturak, berriz, 38.

33. Irudia. Arteetako eta industrietako agenteen banaketa, zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren arabera.

Ehunekoak · 2009-2015




Zuzeneko kulturaren pisua diru-sarreretan eta enpleguan gehitzen ari da 2009az geroztik, nahiz eta ez dituzten aldakuntza asko ehunekoei dagokienez. Kultura erreproduzigarriaren diru-sarrerak 244,3 milioi eurora iristen dira 2015ean (84,8 milioi gutxiago 2009an baino); zuzeneko kulturaren kasuan, 2015ean 128,5 milioi euro dira (11,1 milioi gutxiago 2009an baino).

2015ean, kultura erreproduzigarriaren enplegua % 62,3 da, eta diru-sarrerei dagokionez, % 65,5. 2015ean 1.753,4 enplegu dira, eta zuzeneko kulturarenak, berriz, 1.060,6. 2009an 314,8 enplegu galdu ditu, eta zuzeneko kulturak 15.

Datuak EITBren eragina kontuan hartu gabe aztertzen badira, inpaktua handiagoa da, kultura erreproduzigarriaren pisua jaitsi egiten da eta zuzeneko kulturak garrantzi handiagoa hartzen du: zuzeneko kulturak guztizko enpleguaren % 48,0ko pisua du eta diru-sarreraren % 48,2.


**34. Irudia.** Diru-sarrerak (milioi euro) agenteen arabera, zuzeneko kultura eta kultura erreproduzigarria.

Ehunekoak · 2009-2015



**35. Irudia.** Urteko lanaldi osoko langile baliokideak agenteen arabera, zuzeneko kultura eta kultura erreproduzigarria.

Ehunekoak. 2009-2015



### 3. Arteen eta kultura-industrien bolumen ekonomikoaren bilakaera


Diru-sarreraren batezbestekoaren eta estatistikaren agenteek dituzten langileen batezbestekoaren bilakaerak EAEko kultura-agenteen dimentsio ekonomikoa aztertzea ahalbidetzen du, eta baita azken urteotako dinamika ekonomiko sozial eta kulturalaren aurrean nola jokatzen duten ere.

2009-2015 denboraldiko emaitzak eskaintzen ditu estatistikak, eta bilakaeraren konparazioa egiteko bidea ematen du urte guzti horien zein sektore guztien artean. Diru-sarreraren batezbestekoa sektore bakoitzeko agentearen arabera aztertzen badugu, 2009az geroztik denek jaitsiera izan dutela ikusiko dugu.

Dena den, 2015ean musika ageri da beste sektore guztien gaitetik, joera negatiboari buelta emanda, diru-sarreraren batezbestekoa % 21,4 gehituz 2013arekiko, 2009ko batezbestekoa gaindituta. Ikus-entzunezkoen sektoreak izan du jaitsierarik handiena aztertutako aldian, 2009az geroztik ikus-entzunezko ekoiztetxeen arabera diru-sarreraren batezbestekoa % 35,8 jaitsita.

36. Irudia. Diru-sarreraren batezbestekoaren bilakaera sektoreen arabera.

2009-2015 · Oinarrizko indizea 100=2009



Ondorengo irudian ikus daitekeenez, 2015ean arte-galeriak % 73,8 gehitu ziren eta sustatzaile pribatuak, aldiz, % 51,8. Diru-sarreraren batezbestekoa jaitea agente gutxiren kasuan gertatzen bada ere, diskoaren industria azpimarratu behar da, sektore horrek baitu beherakadarik handiena, ekoizleetan zein saltokietan: diskoetxeak % 33,6 jaisten dira eta disko-saltokia % 11,1.


37. Irudia. Diru-sarreraren batezbestekoa, agente tipologiaren arabera. 2009-2015

Sektorea	Agente tipologia	2009	2011	2013	2015	Aldak. 2013-2015
		Milako euroak	Milako euroak	Milako euroak	Milako euroak	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	157,8	157,1	168,7	172,3	▲ 2,1
	Programatzailea	355,8	320,5	290,0	287,3	▼ 0,9
Liburua	Argitaletxea	1.005,2	920,1	758,2	743,1	▼ 2,0
	Liburu-denda	522,4	560,3	486,5	511,3	▲ 5,1
Musika	Orkestra	6.497,0	5.917,1	5.510,2	5.598,5	▲ 1,6
	Programatzailea publikoa	275,4	262,5	238,7	242,6	▲ 1,7
	Sustatzaile pribatua	962,9	913,8	905,6	1.375,1	▲ 51,8
	Kontzertu-aretoa	269,7	187,4	145,2	171,3	▲ 18,0
	Musika eta txistulari bandak	-	-	805,9	1.008,9	▲ 25,2
	Diskoetxea	341,6	429,6	323,5	214,9	▼ 33,6
	Disko-saltokiak	294,0	156,1	167,6	149,1	▼ 11,1
Ikusizko arteak	Ekoizlea	1.164,0	860,0	812,9	-	-
	Erakusketa gela	129,6	172,1	120,9	152,0	▲ 25,7
	Arte-galeria	71,6	88,8	77,9	135,4	▲ 73,8
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	2.633,0	2.523,9	1.894,9	1.689,2	▼ 10,9

Langileei dagokienez, sektore gehienek azken urteetan izan duten joera positiboa da azpimarragarria. Diru-sarrerei dagokienez, beste sektore guztien gainetik ageri da musika sektorea, agente bakoitzeko % 10,8 langile gehituz batezbeste 2013. urtearekin alderatuta. Ikusizko arteen eta ikus-entzunezkoaren sektorean ikus daiteke batezbesteko langile jaitsierarik handiena agenteko: % 12,5 eta % 15,9 gutxiago 2013arekin alderatuta, hurrenez hurren.

38. **Irudia.** Lanaldi eta urte osoko langile baliokideen batezbestekoaren bilakaera, agente tipologiaren arabera.

2009-2015 · Oinarrizko indizea 100=2009



Datuei zehatzago erreparatuta, ikus dezakegu sektore guztietako agente gehienek joera positiboa ere badela langileen kasuan eta batezbestekoen beherakada batez ere disko industrian dela adierazgarria, non diskoetxeen batezbestekoa % 34,8 jaitsi den eta % 19,2, aldiz, disko-saltokiei dagokienez.

Ildo horretan, bilakaera-datuek erakusten dute diskoaren industriak pisua galdu duela, agerian utziz kultura erreproduzigarriko agente batzuk eraginpean hartzen dituzten kontsumitzeko modu berrien inpaktua, aurreko ataleko datuetan nabarmentzen denez.

39. Irudia Urte eta lanaldi osoko langile baliokideen batezbestekoa, agente tipologiaren arabera.

2009-2015


Sektorea	Agente tipologia	2009	2011	2013	2015	Aldak. 2013-2015
		Batez- bestekoa	Batez- bestekoa	Batez- bestekoa	Batez- bestekoa	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	2,8	2,3	2,6	2,7	▲ 4,2
	Programatzailea	2,1	2,0	1,9	1,9	▲ 1,0
Liburua	Argitaletxea	5,2	4,4	3,3	4,0	▲ 20,5
	Liburu-denda	2,9	3,1	2,7	2,8	▲ 2,2
Musika	Orkestra	70,3	71,4	68,7	67,3	▼ 2,1
	Programatzailea publikoa	1,2	1,0	1,1	1,1	▲ 3,9
	Sustatzaile pribatua	5,0	4,6	4,5	4,5	▲ 0,4
	Kontzertu-aretoa	2,6	2,5	1,7	1,6	▼ 3,1
	Musikako eta txistularien bandak	-	-	14,5	18,4	▲ 27,1
	Diskoetxea	2,6	3,3	3,2	2,1	▼ 34,8
	Disko-saltokiak	1,5	1,3	1,4	1,1	▼ 19,2
	Ekoizlea	5,2	6,0	7,7	-	-
Ikusizko arteak	Erakusketa-gela	0,8	1,0	0,9	1,1	▲ 19,8
	Arte-galeria	1,7	1,4	1,5	1,6	▲ 10,2
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	17,7	17,7	16,4	13,8	▼ 15,9

## 4. Kultura euskaraz

Euskarazko kultura aztertzeko, EAEko egungo hizkuntza-errealitatea hartu behar da kontuan. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitaratutako azken datuek erakusten dute 16 urtetik gorako biztanleen % 33,9 elebidunak direla, eta % 19,1 elebidun hartzailleak eta % 47 elebakar erdaldunak. Alde handiak daude lurraldeen artean: Gipuzkoako biztanleen erdiak (% 50,6) elebidunak dira. Bizkaian, biztanleen laurdenak pasatxo (% 27,6) eta Araban bosten bat (% 19,2).

40. Irudia. EAEko biztanleen banaketa, euskara jakite-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera.

Ehunekoak · 2016




Iturria: EAEko VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa.

Biztanle euskaldunek 35 urtetik beherakoen artean duten pisua erakusten du adinen araberako banaketak: 16-24 urteko biztanleen % 71,4 elebidunak dira, baita 25-34 urteko biztanleen arteko ia erdiak ere. 1991. urtearekin alderatutako datuen bilakaerak azpimarratzen duenez, euskararen jakite-mailaren hazkundera biztanle gazteenen artean izandako aurrerapausoari zor zaio.

## 41. Irudia. Biztanle elebidunen banaketa, adinaren arabera.

Ehuneoak · 2016



Iturria: EAEko VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Nafarroako Gobernu eta Euskararen Erakunde Publikoa.

Hizkuntza-errealitate horrek euskarazko kultura-eskaintzarako balizko merkatua sortzen du, adin eta lurralde aldagaiek baldintzatua, horrek eragina izanik ekoizpen genero eta tipologietan, eta programatzen diren lekuetan lurraldeak eta udalerriaren tamainak.


Orokorrean esanda, euskara nagusi da disko-ekoizpenean (% 80,5), arte eszenikoetan (% 58,5) eta argitalpen-ekoizpenean (% 51,4). Ikus-entzunezkoen ekoizpenean eta programazio eszenikoan maila txikiagoak lortzen ditu (% 39,8 eta % 34,9, hurrenen hurren).

Aurrerago ikusiko denez, ikuspegia nabarmen alda daiteke, azterketa fokua non jartzen den kontuan izanik. Esaterako, ekoizpen eszenikoa aztertzen bada edo antzerkia soilik hartzen bada; EITB barnean hartzen den edo ez ikus-entzunezkoen azterketan.



42. Iudia. Euskararen pisua, agente tipologiaren arabera<sup>3</sup>

Ehunekoak · 2015

**Euskara arte eszenikoetan**

Euskarak arte eszenikoetan duen presentzia aldatu egiten da konpainiak kokatuta dauden lurraldearen arabera, eta ekoizpena edo areto eta jaialdien programazioa den kontuan izanda. Ekoizpenaren kasuan, euskaraz egiten diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak zenbatzen dira. Egindako ekoizpen guztietatik, % 58,5 (69 ekoizpen termino absolututan) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz dira. 69 ekoizpen horietatik, 10etik 4 euskaraz egiten dira (% 39,1) eta 10etik 6 euskaraz eta gaztelaniaz (% 60,9).

Arte eszenikoetako ekoizpenen eta programazioen datuak lurraldearen arabera aztertzen badira, euskarak programazioan baino ekoizpenean duen pisu handiagoa nabarmentzen da hiru lurraldeetan.

Gipuzkoan, euskaraz ekoiztutako ikuskizunen pisua % 68,6 da, hau da, Gipuzkoan egindako 10 obratik ia 7 euskaraz dira; obra horietatik % 28,6 euskaraz besterik ez dira eta % 71,4 euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak dira. Araban 10etik 6 (% 58,8, eta obra horietatik % 20,0 euskaraz besterik ez) eta Bizkaian, aldiz, 10etik 5 (% 48,0, horietatik euskara hutsezko ekoizpenen pisua % 62,5 izanik).

<sup>3</sup> Arte Eszenikoetako ekoizleak: euskaraz eta euskaraz eta gaztelaniaz ekoiztutako antzerki-ikuskizunak // Arte Eszenikoetako programatzaileak: aretoek eta jaialdiek euskaraz programatutako antzerki-ikuskizunak // Argitaletxeak: argitaratutako aleak (nobedadeak) eta berrargitaratutakoak (funtsa) // Ikus-entzunezkoa: euskaraz eta euskaraz eta gaztelaniaz egindako ekoizpenak.

43. Irudia. Euskarazko, eta euskaraz zein gaztelaniazko arte eszenikoetako ekoizpenen banaketa, Lurralde Historikoaren arabera.


Ehunekoak · 2015

Lurralde historikoa	Euskara	Euskara eta Gaztelania	Guztira
Araba	20,0	80,0	58,8
Gipuzkoa	28,6	71,4	68,8
Bizkaia	62,5	37,5	48,0

Antzezen eszenikoen programazioari bagagozkio berriz, ekoizpenak duen pisuaren erdia du programazioak, programatutako 10 antzezenetatik 7 euskara ez den beste hizkuntza batean dira, Gipuzkoan izan ezik, non euskarazko programazioa % 50etik gorakoa den.

44. Irudia. Euskararen presentzia arte eszenikoetako ekoizpenean eta programazioan, Lurralde Historikoaren arabera.


Ehunekoak · 2015



Arte eszenikoetako ekoizpenean euskarak duen pisuaren bilakaerari dagokionez, gehikuntza handia ikus daiteke 2011n 2009arekin alderatuta, gerora Araban eta Gipuzkoan jaitsi egin da, eta Bizkaian, aldiz, bere horretan mantendu. Aipatzekoa da 2015ean euskarazko ekoizpen kopurua % 29,0 gehitu dela 2013arekin alderatuta eta lurraldearen arabeko pisua egonkor mantentzen dela.

45. Irudia. Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoetako ekoizpenean<sup>(1)</sup>, Lurralde Historikoaren arabera.

Ehunekoak · 2009-2015




(1) Euskaraz besterik egiten ez diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak zenbatzen dira.

Euskarazko antzerkiaren ekoizpena soilik aztertzen bada, dantza eta hizkuntza eszeniko batzuk kanpoan lagata, nabarmentzekoa da hamar produktotatik zazpi hartzen dituela. Aldeak ikus daitezke generoaren arabera; haurrentzako antzerkia nabarmentzen da (% 88,7) guztizko batezbestekoaren gainetik, atzetik testu-antzerkia du (% 64,8), batezbestekoaren azpitik puntu batzuk.

46. Irudia. Euskarazko antzerkiaren ekoizpena<sup>(1)</sup>, tipologiaren arabera.

Ehunekoak · 2015





(1) Euskaraz baino egiten ez diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak zenbatzen dira.

Arte eszenikoetako programazioari dagokionez, antzezpenen % 34,9 euskaraz egiten dira, eta antzeppen horietatik % 89,0 aretoetan egiten dituzte eta % 11,0 jaialdietan. Aztertutako epealdian gorabeherak ekoizpenean bezain nabarmenak ez badira ere, azpimarratzekoa da euskarazko programazioak duen goranzko joera 2011z geroztik: 2011, % 30, 2013, % 33,4 eta 2015, % 34,9.

Datuak lurraldearen arabera aztertzen badira, Gipuzkoa nabarmentzen da, euskarazko antzezpenen pisua dezente handiagoa baita gainerakoan baino (% 54,7) eta gehitzen ari da azken urteetan. Araban eta Bizkaian euskarazko programazioaren pisuak ez du % 30,0a gainditzen 2015ean.

47. Irudia. Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoetako programazioan, Lurralde Historikoaren arabera.

Ehunekoak · 2009-2015




Arte eszenikoak erakusten dituztenen profilari erreparatuta, ikus daiteke agentearen tamainak eragina duela euskarazko programazioaren presentzian. Arte eszenikoetako aretoen artean, nabarmentzekoa da euskarazko antzezpenen pisua areto ertainetan eta, bereziki, txikienetan. Lehenengoetan, 10 antzeppenetatik 4 euskaraz dira, eta txikienetan, 10etik ia 7. Haatik, euskaraz jaialdietan duen presentzia minoritarioa da, jaialdietan 10 antzeppenetatik 1,5 besterik ez dira euskaraz.

48. Irudia. Arte eszenikoetako programatzaileek programatutako euskarazko antzezenak, tipologiaren arabera. Datu absolutuak, ehunekoak eta antzezenen batezbestekoa, aretoaren arabera. 2015

Agente tipologia	Euskarazko antzezenak			Antzezenak guztira
	Maizt.	%	Batezbestekoa	Maizt.
Areto handiak	68	11,3	16,9	600
Areto ertainak	573	41,4	15,9	1.383
Areto txikiak	482	66,3	11,5	727
Aretoak guztira	1.123	41,4	13,7	2.710
Jaialdiak	139	15,4	4,0	899
<b>Guztira</b>	<b>1.261</b>	<b>34,9</b>	<b>10,8</b>	<b>3.609</b>

Ekoizpenetan ez bezala, programatutako antzerki-genero guztietan diren euskarazko antzezenak (ez dira kontuan hartzen ez dantza, ez beste hizkuntza eszeniko batzuk). Ekoizpenetan bezala, haurrentzako antzerkiak aldea ateratzen die beste guztiei (% 72,7), atetik kale-antzerkia (% 34,4) eta testu-antzerkia izanik (% 30,1). Antzerki musikalak ekoizpenen antzeko zifrak ditu, baina antzerki lirikoak, zeinean ez dagoen euskarazko produkzioerik, % 19,1 eko pisua du programazioaren kasuan.

49. Irudia. Euskarazko antzerkiaren programazioa, tipologiaren arabera. Ehunekoak · 2015



## Euskara ikus-entzunezkoetan

Euskarazko ikus-entzunezko ekoizpenaren kasuan, euskaraz hutsez egiten diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak zenbatzen dira.

Ikus-entzunezko ekoizpenen % 39,8 euskaraz egiten dira. EITB kontuan izanez gero, ekoizpenaren % 50,7ra igotzen da pisua.

Euskarazko ekoizpena Gipuzkoan kokatutako enpresek duten ekoizpenaren ia erdia da (% 46,4); ekoizpen horietako % 57,1 euskara hutsez ekoizten dira eta % 42,9 euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak dira. Araban 10etik 2 (ekoizpen horietako % 40 euskara hutsez ekoizten izanik) eta Bizkaian, aldiz, 10etik 3 (% 48,0, euskara hutsez egindako ekoizpenen pisua % 36,5 izanik).


50. Irudia. Euskarazko, eta euskarazko eta gaztelaniazko ikus-entzunezko ekoizpenen banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekoak · 2015

Lurralde historikoa	Euskara	Euskara eta Gaztelania	Guztira
Araba	%33,3	%66,7	%17,1
Gipuzkoa	%57,1	%42,9	%46,3
Bizkaia	%36,2	%63,8	%33,4
<b>Guztira</b>	<b>%49,2</b>	<b>%50,8</b>	<b>%39,8</b>

Euskarazko ikus-entzunezko ekoizpenean izan duen pisu erlatiboaren bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke euskarazko ekoizpenen presentzia gehitu egin dela Bizkaian, baina Gipuzkoan eta, batez ere, Araban, ordea, gutxitu egin da. 2013arekin alderatuta, ekoizpena % 14,4 jaitsi da Araban.

51. Irudia. Euskarak ikus-entzunezko ekoizpenean duen pisu erlatiboaren bilakaera, Lurralde Historikoaren arabera.

Ehunekoak · 2015




- (1) Euskara hutsez egiten diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak zenbatzen dira.  
 (2) EITBko ekoizpena ez da barnean hartzen.

Ekoizpenen tipologiaren analisi espezifikoagoak erakusten digunez, egindako emanaldiak eta telebista dira euskarazko ekoizpen-iturri nagusiak: emanaldien % 75,7 eta telebista-ekoizpenen % 60,4 euskaraz egiten dira. Zinema-ekoizpenak dira pisu erlatibo txikiena duten euskarazko ekoizpenak, 10 zinema-ekoizpenetatik 2 baino ez dira euskaraz.

52. Irudia. Euskarazko ikus-entzunezko ekoizpena<sup>4</sup> tipologiaren arabera.

Ehunekoak · 2015 (EITB barne)



<sup>4</sup> Euskara hutsez egiten diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak zenbatzen dira.


## Euskara argitalpen-ekoizpenean

Euskarazko argitalpen-ekoizpenak % 51,4ko pisua du<sup>5</sup> guztizkoarekiko 2015ean, 2013an baino % 11,0 gutxiagorekin (termino absolututan, 192.787 ale gutxiago). Edizio honetan euskarazko ekoizpena nagusi da milioi 1 eurotik gorako diru-sarrera aurrekontua duten argitaletxeetan (% 57,0ko pisua).

Datuak agenteen diru-sarrera profilararen arabera aztertzen badira, ikus daiteke argitaletxe txikienak direla euskaraz gehien argitaratzen dutenak, eta haien produkzioaren % 43,2 da hizkuntza horretan, hain zuzen ere. Haatik, 50.000-100.000 euroko diru-sarrerak dituzten enpresek beren ekoizpen osoaren % 16,7 baino ez dute euskaraz argitaratzen.

53. Irudia Euskararen pisu erlatiboa argitalpen-produkzioan, argitaletxe profilararen arabera.

Ehunekoak · 2015




Zehatzago begiratuta, euskarazko ekoizpena nagusi deneko generoak eta argitalpen berrien eta berrargitaratutakoen arteko aldeak nabarmentzea ahalbidetzen dute datuek. Ildo horretan, hiztegi eta entziklopedien aleak, literaturakoak, haurrentzako eta gazteentzako literaturakoak eta unibertsitatekoak ez diren testu-liburuak dira euskaraz ale gehien argitaratzen dituztenak (% 80,6, % 64,4, % 69,6 eta % 67,4, hurrenez hurren).

<sup>5</sup> Kanpoan utzi da sektoreko datuak desitxuratzten dituzten muturreko balioak dituen argitaletxe bat.



## 54. Irudia. Euskarazko argitalpen-ekoizpena, generoaren arabera.

Ehunekoak · 2015




Euskarazko argitalpenak aldeak ditu nobedadeak edo argitalpen-funtseko berrargitaratzeak diren kontuan izanda: berrargitaratutako aleak nagusi dira argitalpen berrien gainerik. Bestelakoak atalean sailkatutako aleak nabarmentzen dira, ia berrargitaratze ia guztiak euskaraz izanik, eta % 73,3 nobedadeen kasuan.

Baita literatura ere, argitalpen-funtseko 10 aletatik 8 euskaraz argitaratuak eta hamarretik 6 inguru nobedadeen kasuan. Azkenik, hiztegiak eta entziklopediak aipatu behar dira: argitalpen horien % 80,6 euskaraz argitaratzen dira.

55. Irudia. Euskarazko argitalpen-ekoizpena, argitalpen motaren (nobedadeak edo funtsa) eta ale tipologiaren arabera.

Ehunekoak · 2015



## 5. Ekimen publikoak duen pisua eta harekiko mendekotasuna

EAEko kultura-enpresek ekarpen publikoekiko duten mendekotasun-maila txikia dela esan daiteke: haien diru-sarreraren % 4,3 besterik ez dator diru-laguntzetatik. Zehaztu beharrekoa da agente pribatuek jasotzen dituzten diru-laguntzak baino ez dituela kontuan hartzen azterketak, sektore publikoa merkatu-terminotan zer den balioesten hasi gabe, haien ekoizpen eta zerbitzuen bezero gisa. Nabarmentzekoa da jaitsi egin dela aurreko edizioekin alderatuta, bi puntuko beherakadarekin 2013arekiko.

Mendekotasunaren pisua arte eszenikoetan eta ikus-entzunezkoetan da beste ezein sektoreetan baino handiagoa (% 16,1 eta % 7,9, hurrenez hurren). Konpainiak, diru-laguntzen mende izateaz gain, kontratazio-merkatuaren mende ere badira, eta merkatu horretan programatzaile publikoak dira nagusi.

Zuzeneko musikari dagokionez, sustatzaileek mendekotasun handia dute kontratazio publiko-arekiko, diru-laguntzekiko baino handiagoa, beren guztizko diru-sarreraren 2,2ra iristeraino; kontzertu-aretoek mendekotasun-maila handixeagoa dute, 6,2, zehazki.

Argitalpenen eta diskoen ekoizpenak mendekotasun-maila txikia du: argitalpenak % 4ra iristen dira soilik, beheranzko joerarekin, eta diskoetxeak % 6,6ra.

Saltokiei dagokienez, nabarmentzekoa da liburu-dendek eta disko-saltokiek ez dutela zuzeneko ekarpen publikorik diru-laguntza gisa. Arte-galeriek ekarpen publikoen 2,2 eskas jasotzen dute.

56. Irudia. Agente pribatuak arlo publikoarekiko duten mendekotasuna, sektorearen eta agente tipologiaren arabera(1).

Absolutos y Ehunekoak · 2009-2015

Sektorea	Agente tipologia	2009			2011			2013			2015		
		Agente pribatuak	Guztizko diru-sarrerak	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Guztizko diru-sarrerak	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Guztizko diru-sarrerak	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Guztizko diru-sarrerak	Ekarpen publikoak
		Maizt.	Milako euroak	%	Maizt.	Milako euroak	%	Maizt.	Milako euroak	%	Maizt.	Milako euroak	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	68	10.413,5	15,5	59	9.431,0	14,5	49	8.674,1	16,1	57	10.593,4	16,1
	Programatzailea	4	225,5	54,8	3	196,3	30,1	8	2.306,2	43,2	2	-	-
Liburua	Argitaletxea	36	37.638,7	5,3	36	34.591,4	4,9	34	28.810,3	4,5	39	31.145,6	4,0
	Liburu-denda	120	62.689,5	0,3	100	56.030,8	0,2	96	46.708,1	0,2	108	55.381,9	0,0
Musika	Sustatzaile pribatua	21	26.420,0	10,7	19	23.614,8	7,9	21	23.903,8	9,9	11	26.385,3	2,9
	Kontzertu-aretoa	22	6.130,7	1,7	23	4.399,4	1,5	19	2.724,8	5,4	16	2.713,7	6,2
	Diskoetxea	6	2.049,6	4,3	5	2.148,0	4,2	5	1.617,3	4,3	3	644,6	6,6
	Disko-saltokiak	26	7.643,2	0,1	26	4.059,3	0,0	21	3.519,6	0,0	20	2.982,4	0,0
Ikusizko arteak	Arte-galeria	26	1.861,0	7,3	26	2.309,8	3,4	21	1.636,4	3,9	18	2.437,2	2,1
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	81	69.658,0	11,9	77	59.989,4	10,9	73	38.512,0	10,8	89	47.218,9	7,9
<b>Guztira</b>		<b>410</b>	<b>224.729,7</b>	<b>6,8</b>	<b>374</b>	<b>196.770,3</b>	<b>6,0</b>	<b>347</b>	<b>155.720,2</b>	<b>6,3</b>	<b>363</b>	<b>179.895,0</b>	<b>4,3</b>


(1) Ez dira jasotzen agente pribaturik gabeko tipologiak edota sekretu estatistikoa urra dezaketen tipologiak.

## Jarduera

Agente publikoek kultura-eskaintzan duten presentziaren gaineko begiradak beste ikuspegi bat ematen du<sup>6</sup>. Programatzaile publikoak dira nagusi areto eta jaialdien eskaintza eszenikoan: hamar antzezpenetatik zortzi profil horri dagozkio. Ikusizko arteen alorrean, egindako hamar erakusketetatik sei erakusketagune publikoak dira. Zuzeneko musika-eskaintzan kontzertuen % 46,3 ekimen publikoak dira. Ikus-entzunezko eremuari dagokionez, kontuan hartu behar da arlo publikoak jardueran duen pisu nabaria EITBren presentziari eta pisuari dagokiola, txosten honen hainbat ataletan adierazi bezala.

57. Irudia. Titulartasun publikoa duten agenteek izandako jardueraren pisu erlatiboa.

Ehunekoak · 2009-2015



<sup>6</sup> Argitaletxeak, liburu-dendak, disko-saltokiak eta diskoetxeak azterketa horretatik kanpo geratu dira ez dute eta agente publikorik.

## 6. Berritzea eta nazioartekotzea

Artista atzerritarren presentzia EAEn garatzen den kultura-jardueraren nazioarteko irekieramailaren adierazle gisa uler daiteke. Oro har, datuek argi erakusten dute EAeko artista eta sortzaileen pisua argi eta garbi dela nagusi kultura-ekoizpenean eta -programazioan: antzezpen eszenikoen % 56tik hasi eta ikusizko arteen erakusketen % 67,1 eraino.



Musika-programazioan, artista eta talde atzerritarren presentzia 2009ko % 34,8tik 2015eko % 21,1era jaitsi da. Ekoizpenean, artista atzerritarren kopiek ere behera egin dute, % 12,5era iristeraino.

Atzerriko konpainien kontratazioa suspertu egin da antzezpen eszenikoen alorrean: % 10,4 atzerriko konpainiei dagokie eta % 33,4an mantentzen da Estatuko taldeena.

Bestalde, ikusizko arteen sektoreak du aldakuntzarik txikiena: egindako erakusketen % 67,1 EAeko artistenak izan dira, % 21,1 Estatukoena eta % 9,8 atzerriko artistenak.

58. Irudia Nazioartekotzeak kultura-programazioan eta -ekoizpenean duen pisua.

Ehunekoak · 2009-2015




## Kanpo-merkatuetako presentzia

EAEko arte eszenikoetako konpainiek presentzia eskasa dute atzerrian: konpainien antzezpeneen % 8,4 atzerrian izaten dira eta hamarretik hiru Estatuan (% 30,7). Dantza-konpainiek presentzia handiagoa dute atzerrian, gutxitzen ari bada ere.

59. Irudia. Arte eszenikoetako konpainiek egindako antzezpeneak, antzeppen lekuaren arabera.

Ehunekoak · 2009-2015




EAEEn kokatutako argialetxeen kanpo-merkatuek % 40 hartzen dute edizio honetan: % 29,5ek Estatuak dute jomuga eta % 11,3k atzerri<sup>7</sup>.

<sup>7</sup> Kanpoan utzi da sektoreko datuak desitxuratzten dituzten muturreko balioak dituen argialetxeetako bat.



60. **Irdia** Argitaletxeek saldutako ale kopurua (nobedadeak + funtsa), jomugaren arabera.


Ehunekoak · 2015



EAEen kokatutako kontzertu sustatzaile pribatuak Estatuak dute jomuga bereziki, bertan izaten baitira programatzen diren kontzertuen % 42,7. Atzerriko merkaturak haien jardueraren % 1,2 da ozta-ozta.

61. **Irdia**. Sustatzaile pribatuek programatutako kontzertuak, programatutako lekuaren arabera.

Ehunekoak · 2015



## Berritzea


Berritze-tasak, ekoizpen berriak guztizkoarekiko, gorakada adierazten du EAEko agenteen ekoizpen-indarrean.

Argitalpen-industriak % 59,8ko berritze-tasa erakusten du. Disko-industriak gainditu egiten du, % 64,9ra iristeraino.

Ekoizpen eszenikoan, tasa gehitu egin da 2013az geroztik, % 42,1 era iristeraino.

62. Irudia. Berritze-tasa.

Ehunekoak · 2009-2015




## 7. Generoa

Emakumeek arteetako eta kultura-industrietako enpleguen multzoan duten pisua % 47an dago. Liburuaren eta ikusizko arteen sektoreetan du emakumeak presentziarik handiena; esparru horietako hamar langiletatik sei emakumeak dira.

Presentzia txikiagoa dute musikan eta ikus-entzunezkoan, enpleguen % 40 inguruko ehunekoekin. Sektore orekatuena arte eszenikoena da, emakumezko langileen pisu txikixeagoarekin bada ere (% 48,1).

63. Irudia. Lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak, sexuaren eta sektoreen arabera.


Emakumeen ehunekoa · 2009-2015



Lurraldea ez da aldagai esanguratsua generoaren arabera azterketan. Titulartasunaren arabera, emakumeen presentzia nagusia da elkarte eta fundazioen artean (% 56,3). Esparru publikoan horrela uste ez bada ere, gizonak dira nagusi (% 56,8).

64. Irudia. Lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak, sexuaren eta Lurralde Historikoaren arabera.

Emakumeen ehunekoa · 2009-2015




Emakumeen funtzio profesionalaren azterketak datu garrantzitsuak erakusten ditu; nagusi dira kudeaketari eta administrazioari eskainitako postuetan (% 69,9). Zehaztu beharrekoa da horrelako postuak enplegu multzoaren % 12,9 direla. Teknikari- eta zuzendari-profilek emakumeen ehuneko txikiagoari ematen diete lana (% 43,8 eta % 37,1). Kontuan hartu behar da teknikari-profilek enplegu kopuru handiagoa biltzen dutela (% 57,7).

Agente guztien espezifikotasunei erreparatuz gero, nabarmentzekoa da emakumeen banaketa orekatua arte eszenikoetako konpainien postu-profil guztien artean; emakumeen proportzio handia liburu-dendetako enpleguen multzoan, guztira 300 lanpostu biltzen baitituzte esparru horretan; emakumeen nagusitasuna ikusizko arteen erakusketaren esparruan, enplegu gutxi bilduz termino absolututan (33 lanpostu) eta arte-galerietan duten presentzia; musikako programatzaile publikoen artean duten leku nabarmena; eta orkestretako teknikarien artean den parekidetasuna.

65. Irdia. Lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak, sexuaren eta agente-titulartasunaren arabera.

Emakumeen ehunekoa · 2009-2015




66. Irdia. Urte eta lanaldi osoko langileen baliokideak, sektoreen, lanbide-kategoriaren eta agente tipologiaren.

Emakumeen ehunekoa · 2015

Sektorea	Agente tipologia	Zuzendariak	Teknikariak	Kudeaketa/ administrazioa	Beste batzuk
Arte eszenikoak	Ekoizlea	41,4	47,6	56,5	46,8
	Programatzailea	32,4	31,9	74,3	53,8
Liburua	Argitaletxea	29,9	60,4	59,0	39,2
	Liburu-denda	60,6	62,4	83,7	64,8
Musika	Orkestra	0,0	48,3	66,7	0,0
	Programatzailea publikoa	42,0	58,1	56,7	64,9
	Sustatzaile pribatua	21,4	38,6	47,0	50,0
	Kontzertu-aretoa	44,4	26,2	50,0	43,4
	Musika eta txistulari bandak	0,0	26,9	33,3	0,0
Ikusizko arteak	Diskoetxea	25,0	40,0	40,0	0,0
	Disko-saltokiak	9,3	39,8	81,8	0,0
	Erakusketa-gela	85,5	77,7	95,6	19,9
Ikus-entzunezkoak	Arte-galeria	40,5	50,0	71,4	57,1
	Ekoizlea	23,1	43,6	70,3	50,3
<b>Guztira</b>		<b>37,1</b>	<b>43,8</b>	<b>69,9</b>	<b>50,3</b>

Termino absolututan, teknikari-profilak dira enplegu gehien biltzen dituztenak; ikus-entzunezkoa nabarmentzen da eta atzetik du musika. Ikus daitekeenez, kudeaketa- eta administrazio-lanpostuek, zeinetan emakumeek pisu nabarmena duten, ez dituzte enplegu asko biltzen, liburuaren eta arte eszenikoaren esparruetan izan ezik.


67. Irudia. DUrteko lanaldi osoko emakumezko langile baliokide guztien banaketa, sektoreen eta lanbide-kategoriaren arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak · 2015



Emakumeek zuzendaritza-postuetan duten pisua % 37,1eraino iristen da, haietako gehienak liburuaren alorrean ari dira, zehazki liburu-dendetan (66 enplegu) eta, neurri txikiagoan, arte eszenikoetan eta ikus-entzunezkoan (30 postu inguru alor horietako bakoitzean).

68. **Irudia.** Urteko lanaldi osoko zuzendaritza-karguetan jarduten diren langile baliokide guztien banaketa, sexuaren eta sektoreen arabera.

Ehunekoak · 2015



LABURPENA

3





*Arteei eta Kultura Industriei buruzko 2015eko Estatistikak* arte eszenikoetako ekoizpenean, erakusketan eta salmentan, musikan, ikusizko arteetan, liburuan eta ikus-entzunezkoan aritzen diren 629 agenterik buruzko informazioa biltzen du. EAEko arte eta industriei buruzko ikuspegi zabala eskaintzen du, bertan logika publikoa eta pribatua uztartzen direlarik.

Edizio honetako alderdirik nabarmenenak honako hauek dira:

### **Kultura-sarearen suspertze-dinamika bat sumatzen da, diru-sarreraren eta gastuen balantzea positiboa da eta enpleguak gora egiten du.**

2013. urteari dagokionez, agente sarearen % 3,8ko hazkundea izan da (23 agente gehiago). 2015eko gastuen eta diru-sarreraren balantzea positiboa da, 6,2 milioi euroko emaitzarekin (guztizkoaren % 1,7). Aldaketa da hori 2013arekiko, urte horretako balantzea 8,6 milioi euro baitzen, negatiboan. Sektore gehienek beren diru-sarrera batezbestekoa gehitu egin dute.

Enpleguari dagokionez, langileen % 5eko gehikuntza izan 2013arekiko, 138,5 enplegu gehiagorekin.

Ikusizko arteak eta diskoaren industria dira beheranzko dinamikan jarraitzen duten sektoreak. Bilakaera-datuek erakusten dute diskoaren industriak pisua galdu duela, kontsumitzeko modu berriek duten eragina agerian utziz.

### **Titulartasun pribatuko agenteak dira nagusi, jaitsiera txiki batekin.**

Ikuspuntu ekonomikotik eta enpleguaren ikuspuntutik begiratuta, agente pribatuen nagusitasunak ez du proportzioan egokitu beharko litzaiokeen pisua: agente publiko eta pribatuen diru-sarreraren bolumena 175 milioi euro ingurura iristen da (% 48,2 agente pribatuen kasuan, % 4,7 agente publikoen kasuan). Enpleguari dagokionez, titulartasun pribatuko agenteek langileen % 51,5 biltzen dute; 2015ean agente horien enplegua % 7,3 suspertu da.

EAEko kultura-enpresek ekarpen publikoekiko duten mendekotasun-maila txikia esan daiteke: haien diru-sarreraren % 4,3 soilik dator diru-laguntzetatik.

### **Kultura-sarea Bizkaian kontzentratzen bada ere, Gipuzkoa biztanleko kultura-dentsitatean nabarmentzen da.**

Lurralde Historikoen arabera begiratuz gero, agenteen kontzentrazioa ikus daiteke Bizkaian, baita haren pisu ekonomikoa eta enplegu-arloko pisua ere (diru-sarreraren guztizkoaren % 65,2 eta % 61,5, hurrenez hurren).

Baina kultura-sarearen 100.000 biztanleko ratioa handiagoa da Gipuzkoan (35,5), Bizkaiaren gainetik bederatzi puntu (26,5) eta 11 Arabaren gainetik (23,3). Programatzaileen eta ekoizleen ratioak (15,6 eta 13,0, hurrenez hurren) Bizkaiarenak baino handiagoak dira. Esanguratsua da Arabak eta Bizkaiak erakusten duten antzeko maila, kultura-saltokietan izan ezik. Kultura-establezimendu horietan, Bizkaia nabarmentzen da Gipuzkoaren aurretik, eta, bereziki, Arabaren aurretik (7,5, 6,9 eta 3,7, hurrenez hurren).

### **Denboran zehar finkatu egiten da diru-sarreraren eta enpleguaren kontzentrazio-maila handia agente gutxi batzuetan.**

Kultura-sarea agente txikien oinarri zabal batek eta eragin handiko talde murrizt batek osatzen dute. Asimetrien azterketak erakusten duenez, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k sektore bakoitzeko diru-sarrera guztien 10 euroko 7 edo 8 euro metatzen dituzte (liburudendek izan ezik, 10 euroko 6 metatzen baitituzte). Asimetria-maila desberdina da kasu bakoitzean eta dagokion jardueraren eta negozioaren ezaugarrien mende dago, baina, dena dela, diru-sarreraren eta, neurri txikiagoan, enpleguaren metaketa gertatzea eredu komuna da.

### **Kultura-eskaintzaren nazioartekotze-maila txikia da: artista atzerritarrek duten presentzia nahiko txikia da eta bertako ekoizpenek kanpora irteteko izaten duten aukera, oro har, urria.**

Oro har, datuek argi erakusten dute EAEko artista eta sortzaileen pisua argi eta garbi nagusi dela kultura-ekoizpenean eta kultura-programazioan: antzezpen eszenikoen % 56tik ikusizko arteen erakusketen % 67,1 erainoko tarte hartzen du.

EAEko arte eszenikoetako konpainiek nolabaiteko presentzia dute atzerrian: konpainien antzezpenen % 8,4 atzerrian izaten dira eta hamarretik hiru Estatuan (% 30,7). Dantza-konpainiek presentzia handiagoa dute atzerrian, urritzen ari bada ere.

### **Euskarak<sup>8</sup> presentzia nabarmena du antzerki-ekoizpenean eta ikus-entzunezkoan**

Euskarak antzerki- eta disko-ekoizpenean duen pisua % 70etik gorakoa da (% 72,6 eta % 80,5, zehazki); ikus-entzunezko ekoizpenaren erdia da (% 50,7), EITB kontuan hartuz gero; eta argitalpen-ekoizpena % 50 ingurura iristen da (% 51,4). Programazio eszenikoari dagokionez, EAEn programatutako hamar ikuskizunetatik lau euskaraz dira (% 40,6).

Haurrei zuzendutako euskarazko antzerkiaren pisua hamar ekoizpenetatik ia bederatzira iristen da (% 88,7); eta programatutako hamar antzerki-ikuskizunetatik zazpira (% 72,7).

### **Emakumeek kultura-sektoreetako enpleguen multzoan duten pisua orekatu samarra da, baina alde handiak dira emakumeek dituzten postuetan.**

Emakumeek arteetako eta kultura-industrietako enpleguen multzoan duten pisua % 47an dago. Liburuaren eta ikusizko arteen sektoreetan du emakumeak presentziarik handiena; esparru horietako hamar langiletatik sei emakumeak dira. Presentzia txikiagoa dute musikan eta ikus-entzunezkoan, enpleguen % 40 inguruko ehunekoekin.

Emakumeen funtzio profesionalaren azterketak datu esanguratsuak erakusten ditu; nagusi dira kudeaketa eta administrazioa postuetan (% 69,9). Teknikari- eta zuzendari-profilek emakumeen ehuneko txikiagoari ematen diete lana (% 43,8 eta % 37,1).

Emakumeen zuzendaritza-postuetan duten pisua % 37,1 era iristen da, haietako gehienak liburuaren alorrean ari dira, zehazki liburu-dendetan (66 enplegu) eta, neurri txikiagoan, arte eszenikoetan eta ikus-entzunezkoan (30 postu inguru alor horietako bakoitzean).

<sup>8</sup> Ikus-entzunezko ekoizpenaren eta antzerki-ekoizpenaren kasuan, euskara hutsez egiten diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsiak duten ekoizpenak zenbatzen dira.



[www.euskadi.eus/kulturabehatokia](http://www.euskadi.eus/kulturabehatokia)



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA